

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Asier Imaz Tolosa

Askatasunik ez dagoela argi du Pello Mirena Atxukarro Agirrezabalak (Oiartzun, 1955), eta hori ezin du jasan. Ezker Batuko zinegotzi ohia, CCOO sindikatuko kidea, Tolosako PP alderdiaren zerrendetan aurkeztuko da hauteskunde hauetan, Anjel Yañezen atzetik. 33 urte daramatza Tolosan bizitzen eta bere ibilbide politikoaz gain, PPren ildoak aztertu ditu.

Esan al liteke Yañezekiko elkartasunak eta Aznarren praktika ekonomikoak gerturatu zintuela PPra?

Yañez elkartasun eske ikusteak erakarri ninduen lehenik, nahiz eta politikoki ez nuen inongo gertutasunik berarekin. Ezker Batua utzi berria nintzen orduan, baina elkartasunak niretzat ez du inongo kolorerik. Bestalde, Aznarrek hartu zuen gobernuua, eta zer gertatuko zen jakiteko gogoz nengoen.

Bitartean, CCOO sindikatuko afiliatua zinen?

1986az geroztik naiz sindikalista. Horrek esperientzia bat eman dit langileen eskubideen defentsan. Garai bateko teoriak teoria hutsean gelditu dira, eta urteekin praktikak nolako garrantzia duen ikasi dut. Aznar gobernuan sartu zenean, langabezia %20tik gorakoa zen. Ezinezkoa zirudien Europako Batasunean sartzea, eskatzen zizutzen baldintzak beteaz. Baina handik urtebete eta gutxira, langabezia jaitsi egin zen, gizarte ongizateko kotizatzaileak igo egin ziren eta Europako Batasunean sartu ginen, baldintza guztiak betez. Gizarteak behar zuena hori zela ikusi nuen; «PP oso ondo zihoko» esaten nion nire buruari.

Ezkerretik neoliberalismora jauzi polita dago; kontraesanak edukiko zenituen, ezta?

Ikaragarriak. Aldaketa hauek asumitzen asko kosta zait. Ez da erraza izan; euskalduna naiz, abertzale girokoa... buruari buelta asko eman behar izan dizkiot. Baina gauza bat ikasi dut: burua erabiltzen baldin badugu, gure arrazoitzeko ahalmenak eraman-gaitun lekura joan behar dugula, bestela burua soberan daukagu.

Txaketaz aldatu duzula esan al dizut inoiz?

Zuzenean ez didate esan, baina pentsatzen dut kristo guztiak hori esango duela. Oso normala iruditzen zait gainera. Ezagutzen nauten esan izandu didate: «Baina nolatan joan haiz PPra? Elkartasunagatik baldin baduk, PSOEra joan hadi, baina ez PPra».

Ingurune abertzalea izan duzula diozu. PPK Euskal Herriaz duen irudia, oso desberdina da.

Abertzaletasuna ulertzen dut, nola ez. Sentimenduek pertsona asko baldintzatzen dute, eta hori



L.GARCIA

Pello Atxukarro > **Tolosako PPren hautagaia**

Udal programari baino funtzionatzeko moduari ematen dio garrantzia Tolosako PPren zerrendako bigarrenak, «ideiak denak dituztelako eta denei entzun beharra dagoelako».

«Nire ardatza askatasuna da eta horrek mugitu nau nagoen lekura»

ulertzen dut. Baina sentimenduak arrazoitzen jakin behar da. Ni askatasun ezak mugitu nau, askatasuna baita nire ardatz nagusia. PPK askatasunaren alde oso lan ona egin duela iruditzen zait, gainera, ez naiz inoiz anti espainiarra sentitu. Oso eroso sentitu naiz beti euskalduna eta espainiarra izaten, edo espainiarra eta euskalduna, berdin zait. Baina ulertu, denak ulertzen ditut, nahiz eta gauza batzuekin ados ez egon.

Hauteskundeetara begira jarrita, Tolosako PPren programa nola aurkitzen da?

Osasun publikoaren inguruan adibidez, bere aldeko jarrera azaldu dugu; publikoa izan behar du eta horren aldeko apustua egingo dugu indartsu. Programa zehatz meatz azaltzea zaila egiten zaigu, erabakiak hartzeko besteen iriziti eta ideiak entzutea beharrezkoa iruditzen baitzaigu. Hori da beste alderdiekin desberdintzen gaituena, gauzak egiteko dugun filosofia, eta horren ardatza askatasuna izango da.

Ekonomiarloan krisia da nagusi, baita herrietan ere.

Tolosan mila lagun omen daude langabezia, eta hori ikaragarria da. Indarkeriaz hitz egiten duguna ez. Indarkeriaz hitz egiten duguna ez bezala, kasu honetan ere, pertsona horren eskubideez ari

gara hizketan; nik ez baldin badut nire bizitza egiteko bitartekorik, non dago nire askatasuna? 20-30 urteko gazteak, independentzia bila dabilzanak, ezingo dute euren bizitzarik egin. Eta zer esan 40 urtetik gora lanean aritu eta langabezia gelditu direnez, zer eskatu behar diezu horiei.

Udaletik zein politika egingo zenukete?

Askatasunarekin bezala, egiten ditugun gauza guztietan langabezia ere kontuan hartu beharko genuke. Hori izango litzateke gure helburua. Langabezia dagoen jendeari erantzun egin behar zaio, gure eskuetan dagoen guztia eginaz. Ikusi beharko da zer eta nola zehaztu daitezkeen gauzak. Adibidez, enpresak hona ekartzea garrantzitsua da, baita lanean ari den jendeari erraztasunak ematea ere. Hau Tolosako aparkekalekuengatik aipatzen dut, ke-xatu izan baitzaizkit. Lanean dabilenari lagundu egin behar zaio, ez arazoak jarri, lehendik ere nahikoak dituzte eta.

Abiadura Handiko Trenaren ingurura, zein da zure jarrera?

Aldekoa. Azpiegitura hau lanean inguruan esandakoarekin lotuko nuke. Lana hona ekartzeko aukera bat da; beste bide bat. Ni autobiarean aurkako taldean ibilia naiz bere garaian, eta gauza guz-

tiak bere kostua dutela argi dut. Baina kostu garestiena azpiegiturarik ez izatean datza, horrek ez egiteko aukera guztiak kentzen baititu. Noski, oreka bat bilatu behar da, gauzak ezin dira edozein modutara egin. Baina aurre-erapenak beharrezkoak dira aurrera egiteko.

Espainiako epaitegien arabera, Bildu hauteskundeetan egongo da. PPri ez zaio hori asko gustatu.

PPren balorazioarekin ados nago. Demokrazian parte hartzeko aukera denek izan behar dute, ideia guztiak dute lekua demokrazia baten barruan; ideia demokratikoak baldin badira, noski. Independentzia zaleek bere aukera izan behar dute demokrazian. Hori garbi utzi ondoren, metodo guztiak ez dute balio. Bilduren kasuan, Batasunaren kasuan bezala gertatzen da: ETA atzean dagoela. Eta hori ezinezkoa da. Talde terrorista bati ezin zaio demokrazia berrantzeko aukera, ezinezkoa da. Hori egiten badugu, jarraitzeko bultzada ematen ari gara. Zure pausoetara ezin duzu besteen askatasuna mugatu, ondorioz, terrorismoaz ez du lekurik.

Nola dakizu Bilduren atzean, ETA dagoela?

Susmoa badaukat, hemengoa naizelako eta ezagutzen dudala-

ko mugimendu hori nola doan. Baina horrez gain, frogak daude, eta aurkeztu dituzte. Sorpresa bat izanda gainera niretzat, EA bera egon omen da ETArekin, eta aktetan agertzen omen da hori. Nik ez nuen horrelakorik espero.

Garaikoetxeak (EA) esan du hori ez dela horrela, bera ETArekin ez zela elkartu.

Hori horrela da, bai. Ez dakit egia norainokoa den, baina atera dute nerako... ez dut uste inork asmatu duenik hori, komeni zaiolako edo. Niri ez zait harrigarria iruditzen Bildu kanpoan gelditzea, eta jarraera hori gainera ez da nire edo PPrena bakarrik, Epaitegi Konstituzionaleko eta Goreneko epaileena ere bada, horrela bozkatu baitzuten hainbatek. Bi iritziak paretsuan ibili dira.

Publikoak ez diren euskarzko hedabideok egoera aztertu dugu, eta erakunde eta eragileei eskaera zehatzak egin dizkiegu, adibidez, diru laguntzak. Zein irizti duzu?

Euskarak arazoak ditu oraindik, nahiz eta aurrerapauso handiak eman diren. Tolosan %56ak erabiltzen du euskara kalean, udaleko datuen arabera, pentsa oraindik nola gauden. Pauso asko eman dira, baina bide horretatik jarraitu behar da. Komunikabideen kasuan, laguntzarik jaso ezan ez lukete irtenbiderik izango. Gure ahalmenean, ahal duguna egingo dugu. Guk garbi dugu euskara gurea dela, eta laguntzak behar dituela. Hori dena ordea, arazoitu beharra dago, zer egin eta nola lagundu daitezkeen jakiteko.

Hauteskunde hauetan, zein izango da zuen emaitza?

Nik badut konfiantza eta aterako naizela uste dut. Zerrendan bigarren noa eta ez nintzateke harrituko hiru aterako bagenitu ere. PSOEek galera izango duela uste dut, inkestek horrela diote, eta horrek Tolosan ere eragina izango duelakoan nago.

↓ Gertutik

■ **Zer egiten duzu politikatik deskonektatzeko?** Elkarteetan lagunekin egoten naiz. Azkenaldian gainera, aspaldi utzia nauten gauza bat egin dut: nire Oiartzun mendietan ibili. Oso mendizalea naiz.

■ **Herriar bezala, zerk erregatzen zaitu egunerokoa?** Autorekin ezkerrean mugitu gabe doazenek. Gidari txar bilakatu naute gainera, eskuinetik aurreratu eta begira-begira geratzen natzaie, ea zer demontre egiten dute galdetuz. Ganberrismoak ere erregatzen nau; kalean bizikletaz ziztu bizian ibiltzen direnekin adibidez; ez dakite adinekoek zenbateko beldurra pasatzen duten.

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Miren Ezkiaga, Olatz Peon, Jokin Bildarratz, Nerea Letamendia, Jokin Azkue, Nuria Carbonell, Joxelu Andueza eta Blanca Subijana. R. CALVO

Bost ataletan banatutako hauteskunde programa aurkeztu du EAJ alderdiak

Enplegua, garraio publikoa, etxebizitzak, gaztedia eta berdintasuna bezalako gaiak aztertzen dira

Asier Imaz Tolosa

Tolosako EAJ alderdiko kideak kalera irten ziren larunbatean, hauteskunde programa aurkezteko asmoz. Liburuxka Tolosako

etxe guztietara bidaltzeko asmoa azaldu zuten.

Okena emateko garaia lelopean, bost ataletan banatu dute programa. Lehen puntuan enplegua sustatzea, jarduera ekonomikoa eta denda txikiei laguntzea agertzen da.

Bigarren puntuan, garraio publikoa, mugikortasuna eta apar-kalekuak aipatzen dira. Ondoren, Tolosaren eraldaketa burutzen jarraitzeko asmoa azaltzen dute EAJkoek, etxebizitza babestua-

ren plana aipatuz. Laugarren puntuan gaztedia aipatzen dute. Besteak beste, Sevendenearen egokitzea eta Euskal Herria plazan alogerako etxebizitzaren eskaintza burutuz.

Azken puntuan, justizia soziala eta berdintasuna aipatzen dira. Enpleguaren bidez integrazio soziala lortzeko asmoekin batera, udalaren gizarte zerbitzuak zabaltzea eta generoaren berdintasunaren planaren garapena aurkitzen dira puntu honetan.



Aurrean, eskuinetik ezkerreko: Miren Balerdi, Aitzol Galarraga, Irantzu Arratibel, Kepa Uzkudun eta Jasone Armendariz. Atzean, eskuinetik ezkerreko: Maria Luisa Franko, Ana Mari Olazar, Eneko Agirrezabal, Asier Epelde eta Karmen Gaztañaga. HITZA

Altzoko aurkezpena eta Anoetako jaia

Bilduren zerrendak aurkezten jarraitzen dute eskualdean; egitarauak ere antolatu dituzte

A. Imaz

Espainiako Epaitegi Konstituzionalak Bilduri hauteskundeetan egoteko aukera eman zion ostira-lean. Epaia jakin aurretik bezala, ondoren ere eskualdean zerrendak aurkezten jarraitzen dute. Oraingoan Altzoko txanda da. Alkategai bezala Miren Balerdi joango da. Zerrendan bigarrena Aitzol Galarraga da eta hirugarrena Irantzu Arratibel daude.

Anoetako egitaraua

Bilduanoeta ekimenaren barruan, hilaren 13an, Esne Beltza taldearen kontzertua egongo da gaztetxean, 23:00etan. Hurrengo egunean, larunbatean, bertso saioa antolatu dute auditoriumean. Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Onintza Enbeita eta Jon Maia egongo dira bertan. Gai jartzalea Amaia Agirre izango da. Igandean, 15ean, 10:00etatik aurrera hainbat ekimen egongo dira. Pilota partidak, azoka eta abere erakusketa, ekitaldia (12:00etan), sagardo dastaketa eta txekor jatea frontoian. Antolaketan laguntzeko zerrenda Itzulindago, bazkarirako tiketak aldiz Itzulindago eta Goikoetxean aurkitzen dira salgai.

Irudia ▶ Asteasu



ASTEASU BATUZ-EN ZERRENDA

Hauteskundeei begira lanean hasi dira Asteasu Batuz-eko kideak. Iragan ostira-lean zerrenda aurkeztu zuten asteasuarrek, Maria Pilar Legarra buru zutela. Ondoren hauek aurkitzen dira: Julien

Larruskain, Jose Ramon Ayerza, Francisco Javier Olasagasti, Martin Roteta, Nerea Goikoetxea, Iñaki Sorrairain, Beatriz Ayala eta Miren Itxaso Gonzalez. HITZA

Hilberriak →



DIONI RODRIGUEZ CORDERO

andrea

Malatzaren 7an hil zen, 59 urte zituela

*Munduko amarik
hoberenari
beti bihotzean,
muxu handi bat*

Asier, Lander, Naiara

Tolosan, 2011ko maiatzaren 10ean

Helbidea: Amaro, 30, 6-E

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada en pertsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galduta duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Asteasu



DANTZARI TXIKIAK ETA ERA GUZTITAKO LOREAK EGUNA ALAITZEKO

Igandean Asteasu, Dantzari Txikiak eta Loreen Eguna ospatu zuten. Herriko Dantza Taldeko 45 dantzariekin batera, Tolosaldeko, Ibarako eta Larraungo dantzariak bildu ziren dantzari. Plazan guztiak elkarrekin osten, lehenik eta behin, hamaketakoa egin zuten. Ondoren, herriko kaleetan barrena bildu ziren dantzari txistularien laguntzarekin. Ostean, frontoan bildu ziren guztiak dantzatzeko, eta taldeka saioa egin ostean, dantzari txiki guztiak agurra dantzatzuz eman zitoten amaiera goizeko saioari.

Asteasu geratu ziren kanpoko dantzari txikiak, bertako dantzarien etebetan bazkaldu zuten. Era berean, eta goiz osoan zehar, herriko plazan loreen eta landareen azoka izan zen, bertarutako guztiak kiuri edota erosteko. Era guztiako postuak egon ziren: sasoko loreak, kaktusak, bonsaiak, landare ekologikoak... Eta bukatzeko, amatalsaldian, dantzarako gagoa zuten guztiak aukera izan zuten plazan izan zen erromerian. [SARRERAK](#)

Larrau



DENBORA BANKUAREN ESKUTIK, TRUKEAK EGITEKO EGUNA IZAN ZEN

Aitzondo zerbirituzen Mankomunitateak kudeatzen duen Denbora Bankuak antolatuta, igandean, I. Truke Eguna ospatu zuten Larraun. Gozpetik hasi eta 14:00ak bitartean irauin zuten jaleak. Era guztiako produktuak eta era guztiako moduan dauden produktu asko atera zituzten kalea trukatzeko asmoz. Xaboa eta masaje talerak ere izan zi-

ren, eta xaboa egiteaz gain, masajeak hartzeko aukera izan zen. Ipuin kontalariak ere euren bozanda izan zuten. Kultur Etxean beriz, Julio Gisbert madrilitarra izan zen hitzaldia ematen, eta ondoren, Denbora Banku ezberdinetako kideak eta hitzaldira gerturatutakoak, mahal ingurua egin zuten, eta enpleguaz, ekonomiaz eta alternatibez aritu ziren. [SARRERAK](#)

HITZAK harpidedunentzat **bi pertsonentzako afora** du
Ibarrako VIII. Garagardo Festa
Maiatzaren 12tik 15era
sarrerak
saria eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zambaita



Tolosa



ZERKAUSI GAINEAN DANTZAN

Naturaldia jardunaldien baitan, Gipuzkoako Dantzari Profesionalen hainbat elkarterko kideak elkartu ziren Tolosan, *Tingladuko barandilla* delitu diote ekimen honetan parte hartu zutenek eguzkia lagun izan zuten. Gaztetxo ugari bildu zen Zerkausiarren ganeko barandan dantza egiteko. [SARRERAK](#)

Gaztelu



INPUTATUEI BABESA EMANEZ

Gazteluko esker aberzaleak antolatuta, larunbatean, Elkartsun Eguneko bertso bazkarian 50 bat lagun bildu ziren. Lehenengo, sagardo dastatzea izan zuten frontoan, eta bazkaldu aurretik elkarretaraztea ere egin zuten plazan. Bertso bazkarian Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia izan ziren, eta bertsoak entzutearekin batera, kultur etxeko afera gertatu zeneko argazkiak ikusteko aukera izan zuten. Elkartsun Eguna orain 12 urte herrian izandako kultur etxearan afera inputaturakoel babesa agertzeko antolatuta zuten. [SARRERAK](#)

Tolosa



URKOLAREN OMENEZKO DUATLOIA

Larunbatean hamargarren ospatu zen Javier Uholaren omenezko duatloia. Tolosaldeko Duatloia Taldeak antolatzen du, eta giro nahasia baztergen ere, jende asko animatu zen parte hartzera. Iteera Plaza Berrian egin zuten, eta Añeta Zaharrean zehar korrika bi buelta eman eta gero, Plaza Berrian bizikletak hartu eta Añeta aldera joan ziren parte hartzaileak berriro Plaza Berrian bukatzeko. [SARRERAK](#)

Berrobi



UMOREZ BETETAKO EGUNA

Berrobiko gazteek antolatuta, egun osoko festa egin zuten larunbatean. Bertso bazkariarekin hasi zuten eguna. Bixente Gorostidi eta Ander Lizarralde bertsolariak izan ziren. Adin guztiako herritariek elkartu ziren Bide Ona elkartsun. Txiki-lariak ere izan zituzten, bertsolariel txanda emanez, giro alaitzeko. Gauetan beriz, Ingo al deu? taldearen kontzertua izan zen Begi Gorri Gazte txean. [SARRERAK](#)

IRAZKIU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!
EUSKARAZ NAHI DUZULA ACHERAZ DEZAKEZU

IREKI BIDEA EZKERRARI
SARRERAK EUSKARAZ EUSKAL HERRIARRI PLAGITIKARI

Osasun publikoaren aldeko manifestazioa egingo dute maiatzaren 14an

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak blog bat sortu du informazio guztia bertan biltzeko

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak larunbaterako, hilak 14, Tolosan, manifestazio deialdia egin du. Manifestazioa 12:00etan irtengo da Trianguloatik. Izan ere, plataformako kideek prentsaurrean agertutakoaren arabera, pasa den astean eginko alderdi politikoaren mahai inguruan ateratako ondorio bat da «politikoki Eusko Jaurlaritzaren erabakia hartuta dagoela jada, eta herri mugimendua dela hau aldatu dezakeen bakarra». Hain justu, arrazoi honengatik deitu dituzte herritarrak osasun publikoaren alde kalera ateratzeko.

Mahai ingurua

Aipatu mahai ingurura herritar ugari hurbildu zen aretoa betez, eta bertan EBko Jose Mari Vieitesek, Bilduko Ibai Iriartek, EAJko Luke Uribe-Etxeberriak, PPko Suni Guerrak, Aralarko Iñaki Irababaitiak, eta Hamaika Bateko Javier Tellerriak hartu zuten parte. PSE-EEko ordezkaria izan zen, hortaz, huts egin zuen bakarra. Plataformako kideek PSE-EEko kideek azalpenik ez dutela eman argitu zuten, eta beraz, alderdiaren jarrera «koldarra» gaitzetsi zuten.

Plataformako kideek azaldutakoaren arabera mahai inguruan espezialitateetako ambulatorioa giza baliabide eta baliabide tekniko guztien hornitzean alde agertu ziren alderdi guztiak, EAJ eta Hamaika Bat ezik. Plataformako kideak neurri honen alde daudela ere nabarmendu zuten.

Era berean, alderdi guztiek es-

kualdeko ospitale publiko baten aldeko konpromisoa hartu zuten, EAJ eta Hamaika Bat kenduta. «Bi alderdi hauek ez zuten inongo

↓ Ekitaldiak

ORAIN ARTEKO EKITALDIAK

- **12.000 sinadura.** Eskualdean osasun publikoaren aldeko sinadurak biltzen jarraitzen dute, orain arte 12.000 bildu dituzte.
- **Banderolak.** Etxeetako leiho eta balkoietan jartzeko banderolak saldu dituzte.
- **Pankartak.** Pankartak jarri dituzte Tolosako kultur etxean eta baita Tolosaldeko beste herri batzuetako udaletxeetan ere.
- **Hitzaldiak.** Hitzaldi informatiboak ematen hasi dira.
- **Mahai ingurua.** Pasa den astean alderdi politikoekin mahai ingurua egin zuten.

konpromisorik hartu nahi izan, beraiek eskatutako ikerketa baten zain daudelako. Ikerketa hau ikuspuntu misto eta ez publiko batetik abiatzen da, eta txostena ekainean aurkeztuko dutela nabarmendu nahi dugu. Plataformako kideek ez dugu onartzen ikuspuntu ez publiko batetik abiatzen den txostenik», argitu zuten.

Jendartean ere Asuncion klinika publiko bihurtzea proposatzen dutela ere argitu zuten, eta beraiek «erabat ados» daude.

Informazio guztia blogean

Mahai inguruko datuak ematearekin batera, plataformako kideek sortutako blogaren berri eman zuten: www.osasunpublikoa.blogspot.com. Blog honetan egiten dituzten ekitaldi guztien berri ematen dute. Datozen egunetan aipatu mahai inguruari buruzko informazio guztia eta grabaketa ere jarriko dituzte.



Herritar ugari hartu zuten parte prentsaurrekoan. R. CALVO

Mikel Artolak 261,5 puntu eskuratu ditu

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Orion hasi zen igandean; alegiarrak bere txandako laugarren egin zuen

R.C. Alegia

Mikel Artola alegiarrak 261,5 puntu eskuratu zituen igandean Orion izandako Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen saioan. Gazteak arratsaldeko saioan

hartu zuen parte, eta bertan Ibai Esoain nagusitu zen 287 puntuekin. Hauek izan ziren gainontzekoen puntuaketak: Gorka Azkarate (286 puntu), Nekane Zinkunegi (271), Artola (261,5), Mikel Olaizola (261), eta Antton Fernandez (260).

Goizeko saioan hau izan zen sailkapena: Andoni Otamendi (321 puntu), Arnaitz Lasarte (306), Endika Igartzabal (298,5), Josu Oiartzabal Xamoa (297,5), Andoni Goitia (286,5), eta Julen Agirreburualde (246).

Maiatzaren 21ean izango da Txapin Festa

Egun osoko jaia antolatuko dute laugarrenegoz; baltsen jaitsiera ere izango da bigarren urtez

R.C. Tolosa

Txapin Festaren laugarren edizioa maiatzaren 21ean izango da. Gazteek GKO galerian aurkeztu zuten jaia atzean galeriako kideek egindako logo berria zutela.

Gazteek gogoratu zuten, Txapin Festaren lehen edizioak autokritika batekin hasi zituzten: «Tolosako gazteak norbera gure esparruetan, lokal zein tabernetan, elkartzen ginela eta ez genuela gure artean harremanik sortzen. Urterik urte erakutsi dugu aukera izan dugunean gure gure komuna, kalea, okupatzeko gai garena eta kuadrilen artean nahastu eta harremanak sortu ditugula».

Hala ere, Txapin Festa «festa hutsa» baino gehiago dela ere aldarrikatu zuten. «Txapin Festa azken hilabeteetan zehar antolatzen aritu garen kuadrila desberdinetako gazteon nahasketa da,

eta herriko gazte talde desberdinen elkarleku izatea ere nahi genuke», esan zuten.

Hori dela eta, aurten laugarren urtez jarraian antolatuko dute Txapin Festa. «Festa herriko, euskaldun eta parte hartzaile bat egin nahi dugu, ahalik eta gazte eremu zabalenari aukera luzatuz, lokal batetik hasi eta tabernetaraino, gazte-eremu handi eta oraindik gazte sentitzen direnenganaino. Tolosako kaleak bertako gazteon izaeraz beteko ditugu, eta gazteoi eragiten diguten arazoek eta aldarrikapenak tokia izango duten eguna izango da».

Baltsen jaitsiera

Aurten bigarrenegoz baltsen jaitsiera ere antolatuko dute. Hauek Ferialekuan egin daitezke. Tokia behar dutenek, beraz, txapinfesta@gmail.com helbidera idatzi dezaketa.

Urteroko moduan Txapin Festa antolatzen herriko gazte eta eragile asko aritu dira lanean, eta horiei ere eskerrak eman zizkieten: «Gazte lokalei, GKO-ri, tabernariei, musikariei, zuten laguntza eskeini diguzuen gazte talde orori -Bonbero, Marasma saretzen, Otsabi...-».

↓ Egitaraua

- **11:00.** Gazte lokaletatik kalejira musikaz lagunduta. Berazubiko lokaletan hasiko dute kalejira.
- **13:00.** Baltsa jaitsiera Igarondoparetik irtenda.
- **14:30.** Bazkaria plaza Berrian.
- **16:30.** Bertsolariak sortu berri den Tolosako Bertsolari Eskolako kideen eskutik, batzuentzat lehen plaza izango delarik honakoa.
- **17:00.** Koadriletako partaide-

ak hainbat koloretako elastikoekin banatu eta jolasak egingo dituzte.

- **19:30.** Kontzertua (oraindik ere ez dute taldea zehaztu).
- **21:30.** Zahagi ardoa. Mahaia eta sagardo kupela jarriko dituzte, eta nahi duenak aukera izango du bertan afaltzeko.
- **22:30.** Switch eta Keiren taldeen kontzertuak.
- **00:30.** Dj-ak eta eskaintza bereziak tabernetan.



Logo berria atzean zutela eskaini zuten prentsaurrekoan. O. MENDIZABAL

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ile apaindegia.** Esperientziadun pertsona behar da lanaldi osoz lan egiteko. Interesa duenak bidali dezala curriculum metxa2@yahoo.es helbidera.

Laskorainek 4 eta 0 irabazi zuen eta postu onean amaituko du txapelketa

Denboraldi txukuna osatu dute tolosarrekin, talde guztien aurka partiduren bat irabaziz

Iñaki Egizabal Tolosa

Horitxoek gogoan zuten oraindik lehen itzulian jazotakoa. Hamar jardunalditan berdinketa bat eta bederatzigaraipen-azken seirak erreskan-poltzikoraturata bidaiatu baitzuten Elorriora eta hantxe bukatu baitzen ezustean bolada paregabe hura 8 eta 7ko porrot mingarriarekin. Kirol mendeku egarriz kantxaratu ziren beraz ikastolako mutilak larunbatean Usabalera, eta neurketa serio bat osatuaz 4 eta 0 hartu zituzten mendean bizkaitarrak.

Hiru puntu berri eta mende-kuaz gain beste bi lorpen ere erdietsi zuten Javik zuzendatutakoek. Batetik, txapelketa amaitzeko bi jardunaldi besterik falta ez di-

renean, podiumeko postu bat ziurtatu zuten, bigarrena ala hirugarrena izango den oraindik argitzear dagoelarik.

Bestetik, garaipen berri honekin, taldeak aurten eman duen maila ikusgarriaren froga den beste marka bat ere bereganatu zuten horitxoek: ligako arerio guztiei partida bat behintzat irabaztea, txapelkunarengandik hasi eta faroltxo gorriraino. Puntu gehigarriak ematen ez duen ikur bat dela esango du norbaitek arrazoiz, baina balio sinboliko itzela duenik ezin uka.

Goraxeago aurreratu moduan, larunbatean horitxoek neurketa serio bat jokatu zuten. Maiatzeko larunbat arratsaldeak ez dira lanerako aipospenak izan ohi, baina txapelketaren azken hondarreen gaudela gogoratu, laskoraindarrek azken ahaleginerako prest daudela argi gelditu zen.

Joko dizdiratsurik gabe, baina zehaztasun matematikoz, etxekoek partida laurden bakoitzean gol bana sartu zuten, hamar minutu-

ro bat, garaipena eroso bihurtu zutelarik. Golak gainera konbinaketa politen ondorioz etorri ziren, azken bultzakada lau golegile ezberdinek eman zitelarik: Barack Telleriak lehena, Txikik bigarrena atsedendialdiaren aurretik, Iturralde rebelazioak hirugarrena, eta Barriola kapitainak azkena.

Golegileez gain, elaborazioan bikain aritu zen Murgi Laudrup ezin ahaztu; golean amaituriko konbinaketa gehienetan iturburu, eta Aratz eta Endika atezainak ere ez. Azken hauek zati bana jokatu zuten, atea hutsean utziaz, areto futbollean oso zaila izan ohi dena.

Denboraldia Lakunzaren aurka Usabalen errematatu aurretik, Santurtzira bidaiatu beharko du datorren asteburuan Laskorainek. Ea larunbatean bezain pozik bukatzen duten Javi delegatuak, Javi entrenatzaileak eta Aratz, Telleria, Gil, Txiki, Zubillaga-haserako bostekoa, Barriola, Murgi, Illumbe, Iturralde eta Endika jokalariek.

Herri giroa izan zen nagusi, igandeko Loatzora igoera eta jaitsieran

Guztira 78 gizonen eta emakumeen parte hartu zuten urtero antolatzen duten herri lasterketa honetan

I. Urkizu Amasa-Villabona

Igande goizean, eta beste urte batez, Amasako Gazteek eta Uxo-Toki elkarteko kideek antolatuta, Loatzora igoera eta jaitsiera ospatu zuten.

Guztira, 78 parte hartzaile izan ziren herri proba honetan. Antolatzaileen esanetan, burututako «denborak nabarmenak izan ez» ziren arren, «giro ederra sortu zen», eta ekitaldia horrek narbarmendu zuela diote.

Gizonezko parte-hartzaileen artean, Villabonako Hassan Ait Chaouk gurutzatu zuen lehenik, helmuga. Emakumezkoek dago kienez, berriz, Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen lehena. Azkenik, aipatzekoa da Luis Mari Otegi izan zela sailkatuak lehen amasarra.

Bermeoko sprint trialoiean postu onak lortu dituzte bi tolosarrekin

I. Urkizu Tolosa

Pasa den larunbatean Bermeoan ospatu zuten V. Sprint Triatloiean, bigarren eta bosgarren postuak lortu zituzten Atletico San Sebastian taldeko Aimar Agirresarobe eta Egoitz Zalakain tolosarrekin, hurrenez hurren.

Aimar Agirresarobek, 1:13:41eko denboran burutu zuen ibilbidea, eta Egoitz Zalakainek, berriz, 1:14:17ko denboran.

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

BURUZ BURUKO TXAPELKETA. Lehenengo maila.	
Olaizola I	8
Idoate	22

GRAVN TXAPELKETA.

Gazteak banaka.	
Arzelus	12
Untoria	22
Artola	13
Victor Esteban	22

Gazteak binaka

Jaka - Rezusta	18
Elezkano-Larunbe	22

22 urte azpikoak binaka

Apeztxea- Zubiri	22
Elezkano-Perosanz	17

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

17. jardunaldia	
Mondragon Unibertsitatea	59
Bide Bide Ibiza	67

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA.

28. jardunaldia.	
Euskalduna S.D.	2
Tansportes Lakunza	5
Irish Pub Sheperd 's	2
La Bellota	4
Laskorain Ikastola	4
Elorrioko Buskantza	0

SAILKAPENA

1. Concepto-Creatch (76 p.)
2. Laskorain Ikastola (59 p.)
10. Tansportes Lakunza (34 p.)
11. Irish Pub Sheperd 's (33 p.)

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

31. jardunaldia	
Tolosa C.F.	1
Aloña Mendi K.E.	1

SAILKAPENA

1. Real Union Club. (73 p.)
8. Tolosa C.F. (44 p.)

ERREGIONAL PREFERENTEA

29. jardunaldia	
Amaikak Bat	5
Intxurre	2
Mondragon 'B'	1
Tolosa 'B'	8

SAILKAPENA

1. Urola K.E. (57 p.)
6. Tolosa 'B' (44 p.)
12. Intxurre (35 p.)

Laugarren postua lortu du Ibarra Racing-ek Alcañizen

Koldo Alonsok puntu garrantzitsuak lortu ditu Zona Norte txapelketarako, Serie 600 mailan

Itzea Urkizu Ibarra

Ibarra Racing motoziklismo taldeak laugarren postua lortu zuen, asteburuan, Alcañizen.

Taldeko arduradunek diotenez, txapelketa berri honetako moto gidariek «oso maila altua» dute, eta Ibarra Racing taldeko Koldo Alonso motor berrira ohitu gabe zegoen, artean. Hori zela eta, entrenamendu neurtuetarako motorra prest uzterakoan, une txarrak pasa zituen. Arazoak arazo, aurreikusitakoa baino saio hobe burutu zuen Alonsok lehen entrenamendu neurtuetan, Series 600 mailan seigarren postua lortu zuelarik. Azkenik, zazpigarren postua eskuratu zuen lasterketa irteerarako.

Igandean, Alonso ondo hasi zen arren, lasterketa erdian arazoak izan zituen, eta podioaren ateetan geratu zen, Series 600eko laugarren postuarekin.



Koldo Alonso lasterketa hasieran. HITZA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeca Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 118. ibaralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizor: 687 410 118. leizor@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia XIII. HITZA Argazki Lehiaketa



ZELAIETATIK IGUAZUKO UR JAUZIETARA

Maitane Arraiet alegiarrak bidali du goiko argazkia. Aralarren ateratako argazkia dela zehaztu du gazteak. Urrutiagoa da Xabier Loitegi eta Elene Arrazola leitzarrek bidalitakoa, azpikoa: «Brasileko Iguzuko ur jauzietan atera genuen Aste Santuan. Hiru astez Argentinan ibili ondoren, gure bi-

zitzako bidaia leku zoragarri honetan bukatu genuen, baina zorixarrez jendez lepo zegoen Iguzu!! Bilbidean zenbat jende dagoen ikustea besterik ez dago! Hala ere, bikain pasa genuen». Gertu zein urruti, argazkilari bakoitzak bere txokoa. MAITANE ARRAIET/X. LOITEGI-E. ARRAZOLA

XIII. HITZA Aste Santuko argazki lehiaketa

1. Saria Photokafe-k eskainitako **Sony DSC-HX1** argazki kamera.

2. Saria Markina-Xemeingo **Satzu landetxean**, bi pertsonentzako bi gauko egonaldi.

3. Saria **Amaroz jatetxean** bi pertsonentzako otordua.

Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake **thargazkiak@hitza.info** helbidera
Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosaldea Goimailako Institutuak ate irekien eguna antolatuta du gaur, 17:00etatik 21:00etara.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, *Flysch, haitzen hitza* dokumentalaren aurkezpena Asier Hilariorren eskutik gaur, 19:00etan Atxulondo kultur etxean.
- **Tolosa.** Urkizuko eta Aldabako auzotarrek, hilaren 12an, 19:30ean, konposta ikastaroa egingo dute Urkizuko Alurtxiki elkartearen. Zabor organikoa bererabiltzen ikasteko ordu t'erdiko ikastaroa jasoko dute. Formakuntzaren ostean, konposta egiteko kaxa jaso daiteke etxean. Tolosaldeko Mankomunitatearen bidez emango da ikastaroa eta interesa duen orok, izena emateko aukera du oraindik, 639439842 zenbakian.
- **Tolosa.** Udaberri eta udan, etxeko lorategi, terraza edo parretak txukun eta polit edukitzea ikastaroa antolatuta dute Urkizuko Alurtxiki elkarteak. Loreak eta zuhaitzak noiz kimatu, nola zaindu, itzala eta eguzkiaren garrantzia eta abar azalduko ditu Amaia Agirrek ikasta-

roan zehar. Ostegunetan, hilaren 19an hasi eta ekainaren 9a bitartean, 3 orduko saioak izango dira, praktika eta teoria uztartuz. Interesa duen ororentzat dago irekia izena emateko aukera, urkizuar izan edo eskualdekoa izan. Hilaren 16a da azken eguna izena emateko: alurtxiki@yahoo.es edota 639 43 98 42 zenbakian.

■ **Amezketa.** 60 urtetik gorako amezketarrentzat Arantzazura bidaia antolatuta du udalak maiatzaren 15ean. Izena emateko epea hilaren 12a arte, udalletxean. Prezioa: 27 euro pertsonako.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo. A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

bidera
zerbitzuak

Irtenbide biribilak

Banaketa
Komunikazioa
Itzulpenak
Aholkularitza
Publizitatea
Dei zentroa

www.bidera.eu